

OROITMINA

Sorginkeria - Epaietak Senperen eta lapurdin 1609

Mendetan zehar sorginkeriak jotzen du Europa eta hain zuzen, Lapurdi XVII^o mende hastean, Euskal Herria berant bihurtu zen giristino eta bere ohiturari atxikia zen. Bertzeak bertze, bestak eta pertsonaia mitologikoetan sinesmenak atxiki zituen. Ohitura horiek ulergaitza zitzaikien erresumako buruzagiei eta, hala, nola, euskaldunek, eta, batez ere emazteek, botere eta ahalmen gaiztoak zituztela pentsatzen zuten. Lapurditik sorginkeria uxatzeko asmoz, eta hori Bordeleko parlamentuaren erabakien kontra, Henri IV, Frantziako erregeak, komisioko bat antolatu zuen, Bordeleko parlamentuko lehendakariarekin Jean d'Espagnet muga arazoez arduratzeko eta Pierre De Lancre juzea sorginkeria deuseztatzeko, gainera, eskumen guziak eman zizkien, heriotzera kondenatzeko eskumena barne.

- Garai haietan, Lapurdin erabakiak Lapurdiko Biltzarra hartzen zituen. Lapurdiko Biltzarra administrazio demokratikoa zen, eliz gizonak eta nobleak ez zituen onartzen, eta, hori Henri IV ak ez zuen gogoko.
- Komisioko jendearentzat hemengo hitzkuntza eta ohidurak mizterio batzuz ziren, debrukeria.
- Bi aldetan bizi ziren Nafartar eta Lapurtarren muga, susmagarria zitzaien
- Euskaldunek menderatzen zuten larruaren salerosketa indianoekin, merkatu emankor hori, Henri IVak bere hurbileko arduradun bati eman nahi zion. Gainera Frantsesak Kanadan sartzeko eta okupatzeko arrantzaleek traba egiten zien.
- Gizonak arrantzan zirelarik, emazteak, gizartean leku handia zuten. Beren libertateaz poderea jelos ziteken.
- Gainera, bertako burgesia eta nobleen arteko kalapitez erregea baliatu zen komisioko hori igortzeko eta aldi berean bere larderia handitzeko.
- Azkenik jakin behar da ere nola bertako eliz gizonak ixilik egon ziren, horietan zelarik, Pedro Aguerre Axular(1556-1664) Sarako erreter eta idazle eragin handikoa « Gero » liburu famatuaren egilea.

Konturatuz arrantzaleak, Ternuatik etxerako bidean hurbiltzen ari zirela, Etxauzeko Beltran Baionako apezpikua, « erligioso baino gizon politiko eta diplomata zen » (Manex Goyenetche), euskaldeko apezak babesteko, bere adixkide eta konfesatzaile lehena Henri IV erregeari arranguratu zen. Tourseko arxapezpiku izendatua izan zen. Jujeak alde egitera bortxatuak izan ziren. De lancrek berarekin eremanen zituen 200 pertsona eta hauk preso sartu Bordeleko Fort du Hâ. 10 urteren buruan bizirik iraun zutenak libratuak izan ziren gehiagorik gabe.

Arrazoi berezi horien gatik zituen De Lancrek gure Herriari hainbertez pairamen jasanarazi Estimatzen da, 80 bat pertsona erre zituela, gehienak emazteak.

« Oroitmina » oroitarrria, Nestor Bazterretxea (1924-2014) Euskal Herriko artiztarik handienetako baten obra da.

Ezin eremana zituen fanatismoa eta politikari bai erligioari lotzen diren izugarrikeriak. Arbasoeri, oroitzea zor dugu, gureak zirelako eta beren oinazeak gureak ere direlako, Lapurdi 1609 elkarteak galdatu zion obra bat 1609ko gertakizun lazgarriak oroitarazteko Bere memorialak idurikatzen digu leku bat, nun, enbor bateri lotua, sura kodenatua den persona, erreko den, eta beste aldean ikusi ditezke arantza-xixta batzuz sofrikarioa zinbolizatzeke.

Laguntzaile bezala Jean Michel Bedaxagar Xuberoko arotz poeta hartu zuen, bere lana guziz estimatzen baitzuen. Senpereko Herriari eskainia izan da obra hori.

Mendeak iragan dira, baina beren oroitzapena oraino bizi da Senperen eta Lapurdin. Oroigarri honek gertari latz horiek gogorarazi nahi ditu eta aldi berean adi egon injustizi guzien kontra altxatzeko, bai eta

urrun den botere zentralizatuaren gehiegizkerien kontra.

Suisa, Norbogia eta Alemanian « sorgin auziak » aspaldi salatuak izan dira eta biktimak xurituak.

Berriki 2022.01.26 Kataluniako parlamentuak aitortu ditu, "jazarpen misogyna" gatik egin kalteak eta beren eskubide osoetan ber sartu 800 emazte ».

2022.03.08 Eskoziako gobernuak sorginkeriaz akusatu 4000 pertsoneri, (hauetan 2558 erahilak) barkamena eskatu die. Beren ohoretan memorial nazional bat eraikitzeko asmoa dauka.

Lapurdi 1609 elkartearen testua.